

# Nafarrakaria

Nafarrorako gehigarria / Ostirala, 1992ko abuztuak 7 / II. urtea / 36. zenbakia

Bi hormetara



JOSETXO AZKONA



## Lakabe: gizartearen aurrean intsumiso

Kontsumo eta gezurrezko beharren inguruan mugitzen den gizarte antolamenduaren kontraesanak agertzen zituzten. Beren garrasiak objezio eta antimilitarismoaren oihuak ziren. Gero, aldarrikatzen zuten bizimodua eraikitzen hasi ziren, Lakaben. Objezionik serioena. Dagoeneko hamabi urte pasa dira eta hein handi batean sistemara lotzen zituzten kateak hautsi dituzte. Hala eta guztiz ere, ez dute uste gizartetik kan-

po bizi direnik. Orain, inposaketa eta hierarkiarik gabeko ereduak altxatu duten emakume eta gizonak askatasunean bizitzeko duen ezintasunaz jabetzen dira. Talde txikiaren kementa ezinbesteko beharrak asetzeko nahikoa den arren, bere modu bereziko nekazal munduaren mugak onartzen dituzte. Hirira jeisten direnean desberdin sentitzen dira, besteek baino irripar gehiago egiten dutelako edo...

**E**serita nagoen tokitik, itxura ederreko emakume bat daksat bere kuleroask soka batean zintzilikatzen diharduena. Berrogei bat urte izango ditu, eta munduratu zuten bezala ari da bere lana lasai egiten. Valkiria antzaduna. Burua zertxobait jiratu, eta, hara non, gizonzko bat niregan datorrela bizikletaz, bere zakila ezker-eskuin eginez eserleku gainean. Seguru asko, Jean Paul izango du izentzat. Haruntzago behatzen dudalarik, jende biluztua da nagusi ohial koloretsuez eraikitako herri honetan. Ni neu ere, txankletaz bakarrik nauzue jantzita, lerro hauek tarteka-marteka idazten ditudan bitartean.

Bai, hola da, kanping 'Naturiste' batean ari naiz egun batzuk ematen, estrainez. Baionatik hirurogei kilometrorra lekutua, Landas-etako itsas-ertzean, pinudi zabal batek eguzkitik gordea.

Frantsesak eta Alemanak dira gehiengoa herri zoriotsu honetan, haien kontura baita 'filosofia' berri honi bide egitea eta, baita ere, emaitz praktikoa ateratzea. Udaberriko zizak bezala sortuz joan dira Federazio Naturistak honunzko Europa garatu honetan, tankera honetako kanping eta aise-libreko beste zerbitzuren sarea ongisko zabaldu dutelarik. Posmodernitatearen adar-ludikoetako bat, nonbait.

Semantikak, badu bere garrantzia pentsakera-negozio honen eragileentzat: 'nudista' baino 'naturista' hitza nahiago dute, 'jantziagoa' dela adierazi nahien edo.

Bizibide liberaldun, langile kualifikatu, irakasle, jipi zenbaitzu eta ejekutibo bakan batzuk osatzen dute bestetik, kanpiningo populazioa. Primeran zaintzen dituzte ingurua eta zerbitzu guztiak eta, tratua oso errektuak dira elkarrekiko. Chapeau.

Lehen munduko errefuxiatuen kanpamenduak bezalakoxeak dira uda-parteko kanpinak. Eguneroko monotoniaren iheslariek aterpe seguru bilatzen dute berrietan, alde zurririk jakinda, eguzki erredurak eta eurijesak etsai bakarrak izango direla erbestaldiak dirauen bitartean.

Gainera, eta kanpamendu honi dagokionez, denetarik onena, moral estuaren jarraitzaileek ezin dezakete ja egin, arroparen zamatik aldendu eta egun batzuz larrugorritan ibiltzea erabaki duenaren kontra.

Ze, ekintza naturala beharko luke izan besteen aurrean biluzik agertzeak. Holaxe ulertuko zuten ere Greziā Klasikako atletek, arropa esklabuei zaintzeko eman eta, Jinkoen faboreak lortzeagatik, Olimpia hirien lehiatzen ziren garai haietan... Noizko halako bat Ezkaban?

## Gure aukerak

# Iruñeritik irten gabe

### ERAKUSKETAK



**Nafarroako Jaialdietako X. pintura saria** irabazteko lehiaketa antolatuta denez, erakusketa bat burutuko da Iruñean abuztuaren 10ean, goizeko 10etan, presatuko den aldi baterako gelan. Erakusketa honetan lehiaketako partehartzaileen lanak ikusisgai izango dira, hau dela eta, azken urteetako abangoardiak isladatuko direla iragarri daiteke. Epaimahi kideak artearen munduan adituak dira, hauen artean, Marta Gonzalezek, Madrideko Reyna Sofia Arte Museoko Erakusketen Arduraduna.

**Serrano—Frutos** egilearen erakusketa abuztuaren 7 irekiko da Erriberriko gazteluan.

**Xabi Moreno** artistaren eskulturak Amaiurgo Gaztelu kalean dagoen Erakusketa Aretoan ikusgai izango dira abuztuaren 14rte. Artistak Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederretako fakultadetan maisua da.

### DANTZA



**'Montecarloko balleta'** Erriberri izango da Abuztuaren 7 eta 8 gaueko 10etan. Balletak Erriberriko Jauregia izango du antzoki bezala, hau dela eta eskeiniko dueten ikuskizuna ohi den bezala baino ederragoa izango dela espero da. Ekitaldia Nafarroako Jaialdien barne dago eta aipagarrienetarikoen artean dago.

### ERRAN DUTE



*Gogoratuko dut txoznetako jendea, horiek lagundu gaituzte».*

**Manuel Marquez**  
Sanferminetan zauritutakoa

«Etxeberriak (IU) Konstituzioaren 33. artikulua irakurriko balu, ziurrenik komunista izateari uko egingo lioke».

**Alfredo Jaime**  
Iruñeko alkatea

«Soldaduzka egitea kobazuloen garaietako kontua iruditzen zait».

**Xabier Zubiaur**  
Lizarrako intsumisoa


«Aurtengoak Osasunaren denboraldirik onena izan behar du».

**Fermin Ezkurra**  
Osasunako lehendakaria

Abuztua oporraldi eta irtenaldi bereziarako garaia da gehienentzat. Baina ez dira gutxi lan betebeharez josirik dabilzatenak, baita uda partean ere. Oraingo honetan Iruñean gelditzen direnentzat pentsatutako txangoa eskeintzen dizuegu. Kotxea hartu gabe ere egin daiteke ibilbide hau.

Aste buru honetarako eguraldiaren aurrikuspenek diotenez eguzkia eta beroa nagusi izango dira. Iruñetik autobusez bost minutura dagoen ingurune honetan aizeak indarrez egin ohi du putz, eta freskagarri gerta daiteke pasealdi hau. Zizur Nagusi hartzen dugu abiapuntutzat eta gosari oparo batez, ibilaldirako behar ditugun kaloriak bildu ditzagu. Gero, La Moreako aintzirara bideratuko gara.

Ez dago aintzira natural bat baino piszina hoberik eta La Moreako honetarako danetarik eskeintzen du. Wind—surfa gustokoa baduzu ez daukazu 'La Concharaino' joan beharrik. Bainuak eta pasierak ere atseginak dira inguru hauetan. Behin freskatu garenean, bideari ekingo diogu berriro. Gure hurrengo helmuga Galar dugu. Herri honetako zelai



eta arbolak bazkaltzeko aprobetxa ditzakegu.

Arratsalde pasa historiko bat burutuko dugu gaurkoan, Gerdulaineko gaztelu zaharra ikusiz. Beldurrezko

kontuak antzezteko eszenario polita izan daiteke hau. Ilunabarrean Saguesera abiatuko gara. Herria ez da beste munduko gauza baino afaltzeko toki xarmantgarriak dauzka.

Emanaldi honetan abeztuko diren kantak erdi aroko gurutzaden garaikoak direnez nahiko berezia izango da.

**'Rosiniren obertura eta ariak'** abeztuko dituzte Poliphonia Abesbatza, Bulgariako Orkestra Sinfoniko Berriak lagundurik. Saio hau, Lizarrako Lux zineman burutuko da, abuztuak 12 asteartean, arratsaldeko 8etan. Hiru musika saio hauek Nafarroako Jaialdien barne daude

**'Dekadencia', 'Reincidentes'** eta 'Kalean' taldeak kontzertu bat eskeiniko dute, gaur, Etxarriko Ikastolan, gaueko 10:30etan. Herriko jaietan arituko den musika talde patxangeroa maite ez dutenentzako aukera ezin hobea.

**'Patagonia'** taldearen musika Tafallako 'Cristal' tabernan entzungai izango da gaueko 11etatik aurrera. Taldea hasi berria izan arren, dagoeneko zaletu asko bildu ditu bere inguruan.

### ASTEKO PERTSONAIAK

#### J.I. Lopez Borderias



Herrilan sailburua

A txitarteko balizko proiektu aldaketa dela eta, asteko pertsonaien artean lekutxo bat irabazi du Lopez Borderiasek. Herrilan sailburua atzo bildu zen Izquierda Unida eta Eusko Alkartasunako ordezkariekin, UPNk bi alderdi hauen sostengua exigitu bait dio Gobernuari edozein aldaketa bultzatu ahal izateko. IUk ezezkoarekin erantzun dio zutabe bakarreko proposamenari. Dena dela, alternatiba hori hobetuz gero bere onspena eman dezake alderdiko batzorde eragilea biltzen denean. EAK, berriz, bere jarrera Parlamentuan bakarrik azalduko duela iragarri du.

#### Ruiz Mateos



Enpresaria

Lizarrako jaietara etorre zen. Ez supermanez moztortua, Madrilen egin zuen antzera. Pañuelo gorria lepoan, lizarratar gazteekin saltoka ibiltzeaz ez zen lotsatu. Festa gogoia izango zuela ezin ukatu, baina publizitate grina ere nabari zitzaion Jerez aldetik etorritako gizon honi. Lizarratik, Tafalla aldera abiatuko zela adierazi zuen, Solchaga ministroa jaio zeneko herria ezagutzera eta bide batez honek ezarritako neurri ekonomikoak kritikatzera. Lortu du, Ruiz Mateosek, bere nahia: Nafarroako eta Euskal Herriko komunikabide guztietan leku bat izatea.

#### Goran Stojanovic



Atezaina

188 zentimetro eta 91 kiloko morrosko serbiarrak Mepansa eskubaloi taldearen atea defendatuko du heldu den denboraldian. Laurøgeitahiru aldiz arituko da Yugoslaviar selekzioarekin, eta baloiak gelditzen ederki dakien gizona omen da. Serbiar eta Kroatan arteko gerratea dela eta, Bartzelonako jokoetatik kanpo geratu dira Stojanovic eta bere selekzokideak. Horri esker, joan den astelehenean Iruñean izan zen jokalaria, bere burua nafar zaletuen aurrean aurkeztu. Iñaki Lopez —talde nafarraren beste atezaina— ez da ez pozik izanen.

**'Platero y tu'** zaratsua musika saioa burutuko dute bihar, gaueko 11etan Alfaroko pilotalekuan.

**'Oskorri'** folk taldeak abuztuaren 9an kontzertu bat eskeiniko du Tafallako zezenplazan. Musika saio honen antolatzaileak, Tafallako Peñen Batzordea izan da.

### ANTZERKIA



**'Bekere'** antzerki taldeak 'Cuando el hielo arde' obra eskeiniko du abuztuaren 10, arratsaldeko 8etan, Lizarrako Lux zineman.

### IKUSKIZUNAK



**'Yatran'** taldeak 'Ukraniako musika eta danta' saioaren emanaldia burutuko du abuztuaren 13an, arratsaldeko 8etan, Lizarrako Lux zineman.

### ZINEMA



**'Corazon Salvaje'**. 'La condena' eta 'La tarea' filmeak jatorrizko hizkuntzan ikusgai izango dira Iruñeko Golem zineman, abuztuaren 7, 8 eta 9an. Filme hauen artean hautazetik badago. Dena den, David Linchek zuzendutako 'Corazon salvaje' filmeak ikusle gozagarri biltuko duela espero da. Batez ere, zuzendari iparamerikarrak azken aldi honetan lortu duen ospea kontutan hartuz.

### ADI !

#### EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... Xinguli Mangulu hauterendako saioa.

#### XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... Karakola segi hola gazteendako saioa.

#### HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenan FMn 21.00etatik 22.00etara... Gautxori irratiaio musikala. Narrazioak.

#### RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenan zehar 20.30etatik 22.30etara... Zuri eta Beltz Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

#### ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenan zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

## Leitza pesten atarian

A.A. / IRUNEA

Abuztuaren 11 arte itxoin beharko dute leitzarrek, herriko festen erdigune den Tiburtzio donearen eguna ospatzeko. Baina, berotuz eta ohituz joateko, igandean hasiko dira egitarauan antolaturiko ekitaldiak. Eta jaie-tako lehen egunean umeak izango dira nagusi. Leitzaoko alkateak 'Plazaola' herriko aldizkarian agertzen den egitarauan gogora erazi nahi izan duen bezala, festa herriar guztiei zuzenduta daude eta aurreko bereziki etxe-koandreez arduratu dira, hauek bait dira jai izan arren lan guzieren zama daramatenak. Hala ere, lehen egunean umeak izango dira nagusi.

Ikustaldi eta dibertsio guziak haurren neurria egokituko dira egun honetan: txikitu egingo dira. Baina tamainak ez du beti azkeneko hitza, festa giroa ez da gutxi izango. Goizaldean zaldi

txikiak, poney-ak, plazan ibiliko dira eta beranduxeari, Olinpiada txiki batzuk ospatuko dira, Barcelona-raino joan gabe, herriko plazan umeentzako jokoak prest egonen dira. Arratsaldean eta txirrinu probaren ondoren dantzari txikien kalejira egongo da ikusgai. Parte hartzen ez dutenentzat, noski. Dantzaldi bikain batekin emanen zaio amaiera egunari.

Astelehenean, arratsaldean leitza guztien begiak gorantz begiratuko dute, ez zerurantz baizik eta Udaltxeko balkoirantz. Etxafuegoaren jaurtiketarekin emango zaie hasiera festei. Txaranga, txistulari eta buruhandiak ibiliko dira kaleetan zehar musikaz blai egongo den egun honetan. Gaualdean Gaubela taldeak girotutako dantzaldia eta goizeko 3retan 'ligatzeko ingurutxo'



Leitzaoko plaza berriró gainezka ikusiko dugu bihartik aurrera.

interesatu guztientzat.

Tiburtzio Donearen egunean herri-kirolen ikuskizunik ez da faltako, ez eta ezpatadantza saiorik ere. Goizeko bederatzietan entzierroa eta zezenak izanen dira plazan.

Astean zehar, egitaraua mamitsu azaltzen da dantzaldien arloan: Gaubela, Joselu Anaiak, Akelarre, Gauero eta Arenal taldeek beharko dituzte leitza eta kanpoko festazaleen gorputzak mugitu erazi.

## 130 biztanleko herrixka bateko jaiak

A.A. IRUNEA

Orokieta-Erbitiko kontzejuko biztanleek jai giroan pasako dute asteburua eta astelehenean atsedenditxo bat hartu ondoren, asteartean patroiarren egunean, herri bazkari batean bilduko dira berriro. Norbaitek huts egiten badu besteek erraz igertuko dute.

Gaur gauean, afal ostean dantzaldia prestatu dute orokieta-rrak. Aurreko urteetan ez bezala, herri kirolak ez da izango aurrean, ez eta bertso saiorik ere. Belarretako lanak atzeratu egin zaizkie Orokieta eta ezin izan dute gauza haundirik antolatu. Baina umeak ez lukete barkatuko eta hauentzako jokoak eta sariak prest daude. Igandean meza nagusiaren ondoren Orritz dantza taldearen emanaldia ikusi ahaliko da. Asteartean, Tiburtzio Donearen egunean, berriro ere herri bazkari oparo baten inguruan elkartuko dira.

## Xelebrekeriak nagusi Sartagudan

M.A. / IRUNEA

Urtero antolatzen den 'kalimotxadak' hasiera emango die bihar Sartagudako jaiak. Udaltxekak suzuria piztu baino lehen kalimotxo banatzen du gazteen artean, hauek girotzeko asmoarekin. Bederatzi egun iraungo dute jaiak eta aurtengorako egin den egitarauak aurreko urteetako ohiturekin apurtzen du, egun guztian zehar ekitaldi anitz eta adin guztietako ikuslegoari zuzendutako izango dira, honela jaiak ez dira bakarrik gaueko ekitaldiak murrizten.

Sartagudarrek herria hirurogei metrotik ikusteko aukera izango dute lehenbizikoz, udaltxekak lurrari lotuta globo bat jarriko bait du. Ekitaldi hau arrakastatsua izango dela espero dute antolatzaileek. Lehiaketa bitxi, farregarri eta arraroak nagusi dira jaietan: 'atxurraren jaurtiketa', oztopoz beteta dagoen traktore laisterketa, pankarta lehiaketa, galtzontzilo laisterketa, jynkanak, galderada lehiaketa eta antzekoak. Dena den, Sartagudan gogokoenak nekazal munduarekin zerikusirik dutenak dira eta batik bat 'atxurraren jaurtiketa'. Herriarrek atxurra jaurtikitzen dutenean lanaz ahasten dira, hau dela eta ahalik eta urrutien botatzeko ahaleginak egiten dituzte.

Jaiak amaitzeko 'maskota' erretzeari ekiten dute Sartagudan. Urtean zehar gertatu den gauzarik garrantzitsuenaren inguruan itxura bat egiten dute herrikoek, eta azkenengo egunean su ematen diote. Joan den urteko maskota Indurain izan zen.



## Aupa Agoitz!

M.A. / IRUNEA

Bihar Agoitzeko jaiak hasiera emanen dien txupinazoa jaurtiki baino lehen, gaiteroek eta txaranga herria zeharkatuko dute animoak suspertzeko. Goizetik giro ona eta musika nagusitza da kalejira berezi honen helburua. Alkateak suzuria piztu arren, herriko koadrilek, konpartsek, gaiteroek eta elkarte kulturaletako ordezkariak ere parte hartuko dute ekitaldi honetan beraien txafle-roak piztuz. Txupinazoaren ostean 'zurrapapote' lehiaketa burutuko da eta epaimahaia udal korporazioa izango da.

Agoitzeko haurrek nagusiek bezala beraien udal korporazioa dute, hau dela eta astelehenean, abuztuak 10, haurren eguna ospatzen denez zenbait ekitaldi ofizial burutuko dituzte. Goizeko hamaikak aldera Udal korporazio 'txikiaren' aurkezpena izango da eta gero Agoitzeko 'Bilaketa' txaranga lagundurik gazteen 'zurrapapote' lehiaketa irabazleak erabakitze herriko 'pipote' guztiak zeharkatuko dituzte. 'Pipote' bakoitzaren 'zurrapapotea' dastatzeaz gain, biltokiaren apainketa eta bizitzen den giroa kontutan hartuko dira garaileak erabakitze.

## Txaranga gau eta egun Sunbillan

MIREN A. ARROIABE / IRUNEA

Azkeneko urte hauetan egin izan den bezala, astelehenean, abuztuak 10, arratsaldeko zortzietan jaurtikiko dute Sunbillako jaiak hasiera ematen dien suzuria. Txarangen doinuak txupinazoaren ondorengo giro xarmargarria sortzeaz arduratuko dira, honela, herriar guztiak batu eta elkarrekin afaltzera abiatuko dira. Ohiturari eutsiz, menua alde aurretik erabakia dago eta baita lekua ere: baztanopak Ulibeltzak elkartean eta herriko ostatuan. Derrigorrezko kafetxo, purotxo eta kopatxo hartu ondoren dantzatzeko aukera izango dute Sunbillarrek. Dantzaldiari dagokionez ere, azken hamar urteetan bezala 'Jator' taldea egongo da gaua alaitzen, dagoeneko ongi ezagutzen bait dituzte sunbillarren kanta maiteenak. Hu-

rrengo egunean San Tiburtzio ospatzen denez meza santua izango da, ondoren Sunbillako dantzarien emanaldia eta azkenik herri kirol saioa. Sunbillar askok gaupasak eragiten dituen ondorioz izango dira herri kirol saioa ikusteko. Herri kiroltarako zaletasun handia dagoenez, saio hau ikusle gehien biltzen duena izan ohi da beti Sunbillako jaietan. Herri kirolak izen berezia dauka Sunbillan: aizkora apustua hain zuzen.

Abuztuaren 14a arte irauten dute Sunbillako jaiak eta azken egunean ez da 'pobre de mi' ofizialik izaten. Batzuk 'Jator' orkestaren saioa amaitzen denean oheratzen dira, beste batzuek aldiz, 'Ulibeltzak' elkartean txaranga musikekin dantzatu eta eguna argitzen den arte luzatuko dituzte aurtengo jaiak.





## Gazteendako Zokoa

### Miarritza

*Emberiza hortulana*  
Oso preziatua iraganean  
Kurloiairen tamainukoa  
Kabiak lurrean egiten ditu



### Doinu berizia

Miarritza hegazti migratzailea denez, Apirilaren amaiera aldera ailegatzen da Nafarrora eta abuztuaren bukaeran negua igarotzeko leku baten bila alde egiten du. Kabia egiteko landatutako sorroak aukeratzen ditu, eta batez ere eguzkitsuak badira. Emea kabiaren eraikuntzaz arduratzen da, lurrean zulo bat egiten du, normalean zuhaizka baten azpian, eta gero erroak pilatuz osatzen du kabia.

Miarritza aurkitzea oso zaila izaten da, erraz ezkututzen da zuhaizketan. Dena den, bere kantua bidez 'tik—tik—tik—ta' bereiztea posible izaten da. Aurreneko hiru silabak doinu berdinean abesten ditu, azkenengoa berriz baxuagoan.

Miarritza kuloiairen tamainakoa izan arren, buztana luzeagoa dauka. Hegoak eta goikaldea arre iluna da, burua eta bularra berdexkak, biboteak eta eztarria berriz horiak dira. Emeak arrak baino kolore ilunagoak dituzte.

Europar ugaria da, Noruegaren hegoaldetik mediterraneoraino hedatzen bait da.

# Indijenak



### ORREAGA BARBERENA


Indiar hitza edozein hiztegitan ikusten dugunean jartzen duen lehendabiziko gauza Indiako (Asiako) pertsonak direla izaten da, beste batzutan aldiz indijenek eta indiarrek ez dituzte bereizten eta biek indioak deitzen dituzte. Nere ustez ez dira berdinak: Indijenak lehen Ipar edo Hego Amerikan zeudenak dira. Lehen jartzen dut, oso gutxi geratzen direlako eta geratzen direnak erreserbetan edo Amazonas ohianean bizi dira. Nere ustez pertsona hauek balio handiko izakiak dira. Idazten ari naizen-lau lerrohauek baino askoz

gehieago merezi dute. Nik pentsatzen dut haiekin gertatu zena, hobe esanda haiei egin zieten, ez da inoiz zehatz mehatz jakingo.

Espainarrak eta portugesak, Colonen garaian, Amerikara joan zirenean indijenak jaun eta jabe ziren Ipar zein Hego Amerikan. Horrea ailegatu zirenean erregeak ziruditen, espainarren eta portugesen teknikak bertakoak baino aurreratuagoak ziren, armetan alegia. Indijenei eraso egiten zieten, hauek babesgabe aurkitzen ziren, armak haien harri eta makilen gainetik zeuden. Berehala indijenak menperatuak izan ziren. Orduak gi-

zonezkoak esklabu bezela hartu eta emakumezkoak bortxatu egiten zituzten. Honekin esan nahi dudana da basakeri bat egin zutela, eta gainera garaile atera zirela deritzoten harrokeriaz.

Amazonas oihanean bizi direnak ez dira oso kondizio onetan bizi, haien zentzuan nahikoa da ez bait dituzte beste batzuk ezagutzen. Haien bere kulturak eta ohiturak dituzte nahiz eta Espainarrak hara joan zirenean zapuztu. Haien bizitza adibide bezala hartu behar genuke; haiek ez dakite zer den dirua guretzat oinarritzakoa da. Beraz, jendeak ezagutu behar litzuke epaitu ahal izateko.



### BASAJAUN

Askotan hitz egin dugu gai honi buruz, hala ere berriro eutsiko diogu asuntxo honi. Gizarte dotore batean bizi gara eta bizimodu eroso antolatua dugu bertan. Kontsumozko zirkulo batean murgildurik, gauzak erabili eta gero bota egiten ditugu. Gaurkoan zelulosaren erabilpena azpimarratu nahi nuke.

Garai batean soilik komunean erabiltzen bagenu ere, egun edozein gauzatarako beharrezkoa gertatzen zaigu, betidaniko moduak baztertuz, hots mukizapiak eta ipurtzapiak. Erabiltzerreagoak direlaren arrazoak argudiatuz, nahiago ditugu behin erabili daitezken produktuak. Mukizapiak, ipurtzapiak, plastikozko sukalde tresnak... Konsumo jokoera berri hauek arazo larriak sorteraizten dituzte.

Gure inguruetako ibai eta urtegiak kloroz kutsaturik daude. Esan behar, kloroak badituela gizakiarentzat kaltegarri diren toxina batzuk. Bestalde, zelulosaren erreziklaketa oso konplexua da. Zaborretara bota beharrean, maiz desaguetatik behera joaten dira garbitasun pertsonalerako erabili ohi ditugun zelulosazko produktu hauek. Hodiak oztopatu daitezke eta bakteriak nahiz birus askoen hedapena erretzen dugu modu honetako jokoeraz. Konponbidea zure esku dago. Behinbetiko artikulua erosi itzazu, mukizapi, eskutrapu eta musuzapiak. Zelulosazkoak, azken finean kaltegarri dira zure buruarentzat.

## KAZKARROAN

### Jenero Xumekoak

#### Karol ibiltaria

Karoli kulebroi ameriketarrik guri biskya adina gustatzen zitzaizkion. Britain Nagusira ourpair joan zen eta etxeko nagusiarekin maitemindu. Bells—bells—bells—Well—Well—Well. Aste bat eman zuten Eskozian, ostatutik atera gabe euria etengabe ari bait zuen. Port Royaleko zubitik desio bat bota zuen uretara, bost peniketakoak. Bells—bells—bells—wells—wells—wells. Orain bisky eskoziar baten errepresentazioaz gain taberna bat dauka eta haren auzoko mutilok bezeroetan ohizkoenak izaten gara. Well—well—well. Bells—bells—bells—bells.

JEREMIAS ERRO

A L L P O K K O X U R I  
U R Z E T A Z R Z D U R  
Z M G A R I S O A I N U  
T U E I H A X L Z X O R  
R N N X Ñ E T O I T A R  
U I B I H A N E Z M R E  
Z A E Z T O N E T S E A  
I I D S J Z E O H A Z L  
A N X A T B I G U R I A  
I Z I E I K Z U M A N U  
B T U I B I D A U R R E  
Z M N N E I O G R U T I

### LETRA ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan Gesalatz ibarrean dauden herriguneeen izenak. Herrigune hauen izenak ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurri agertuko zaizkizu.

### Zaharrak berri

«Antza—putza baino arrogoa»

Bere burua inor baino gehiagotzat daukana

Arano

«Eltze bakoitzek bere estalkie behar»

Mutil bakoitzak neskatoa behar du

Oskotz (Imotz)

Telefonoz:

—Aizu, eroetxea al da?

—Ez jauna, konfunditu egingo zine. Guk ez daukagu telefonorik.

## Bizi Bizian

# Arista: hormetan zintzilik

MIREN A. ARROIABE / IRUNEA

Duela pare bat urte Iruñeko lau gazte soketatik zintzilikatzen hasi ziren eraikinetako hormetan behar ziren lanak burutzeko asmoz. Honela sortu zen Arista elkarte. Enpresa xeble honek etxeetako paretak eta monumentuak berritu, konpondu, margotu eta garbitzeaz gain, tximiniak eta tximistorratzak ere jartzen ditu.

Gazte hauek lanean aritzen direnean soka batetik zintzilikatu eta pisu handiko tramankuluak eramaten dituzte bizkarrean. Honek lanak berez duen arriskua areagotu egiten du. Hau dela eta, soka zer nola dagoen bizitza bezain garrantzitsua da; hortik dator egunero jorratu eta aldatu beharra. Prebentzio guztiak gutxi izango direlakoan, hiru aseguru dauzkate eta larrialdietarako ere prestaturik daude. Hortaz, guk ogibide arriskutsutzat jotzen duguna, 'armiarma' trebe hauek gogoko dute. Guk arriskua ikusten dugun lekuan haiek gozamina dakusate. Batez ere adina lan honetan segitzeko muga bat dela kontutan hartuz, hogeitamar —hogeitamabost urterekin eskalaztea ez da batere erraza izaten. Dena den, norberaren egoera fisikoaren arabera epe hau luza daiteke.

Gainera, inolako aldamiarik gabe aritzeak abantaila asko ekartzen ditu lana bilatzeko orduan etxeetako bizilagunentzat erosoagoa bait da. Era berean, ziurragoa izaten da aldamioren ordezkari zintzilik edukitzea, soketatik lapurrak sartzea zailagoa da eta.

Hirietako kaleetan dauden ai-

## Tam-tamen erritmoan

A. AGIRREURRETA / IRUNEA


Urtean zehar egiten ez ditugunak izaten ditugu gustukoaren oporraldietan. Gehienoi horrela gertatzen zaigu behintzat. Baina 'frikiak' ezberdinak dira. Aise tarteak betetzeko modurik onena egunerokoa errepikatzea da hauentzat. Izan ere, oporraldi batzuetan bururatu zitzaizen beren zaletasuna ogibide bihurtu zela.

Behin helmugatzen Estatu Batuak zituen abioia hartu eta Mendi Harritsuetako haitz bertikalean zirritu eta zirrikituen bila ihardun zuten, iltzen eta behatzen kokagune egokiak topatu arte. Gauez, mila metroko altueran hamaka zintzilikatu eta bertan antolatzen zuten beren habitxoak. Izarretatik gertuago. Nahiz eta ingelesa ez menperatu, denok ulertzen dugun hizkuntzaz baliatuz lagunartea berehala sortu zen eta baita kotxez Oregon eta



Arriskuari muzin egiten diote hiriko eskalaztaile moderno hauek.

tzinalde altuetatik gora eta behera irristatzen diren eskalaztaileak ikustea, ez da eguneroko gauza izaten, batik bat, Iruñea bezalako hiri txiki eta ohiturazalean. Hau dela eta, pasadizu barregarri eta dibertigarri anitzak bizi dituzte Aristako gazteek. Berezieta Donibane auzoko etxe baten paretak konpontzen ari zirela gertatu omen zitzaizen, hodiari bat jartzeko zuloak egiten ari zirenean. Azkenengo pisuko leiho batetik gizon bat garrasika hasi zitzaizen ez bait zekien zertan zebiltzan. Eskerrak azkenean gauzak argitu zirela. Dena den, etxeetako leiho aurretik maiz pasatzen direnez, auzokideak izutzea eguneroko gauza bihurtu da gazte hauentzat.



ARISTA

**L**anik atseginenak herrietan egin ditzaketenak dira. Ankaluzeen habiak edo kanpandorreko erlojuaren esfera aldatzearen aginduak jaso dituzte eta askotan ibiltzen dira Iruñetik kanpo. Hirian, udaltzainek arazoak ezartzen dizkie, paper eta baimen asko eskatzen dietelako.

California zeharkatzeko proposamena ere.

Geroztik egunero etxetik ateratzen soka daramate motxilan. Baina zama haundiagorik ere eramaten dute hegaldi garaigoak prest dituztenean. Malira joan zirenean, esate baterako. Hunkiturik itzuli ziren, afrikarren nekeak eta zailtasunak eza gutzean Iruñeko bizimodu erosoaz jabetu zirelarik. Bizi esperientzia ahaztezina izan zen hura eta behin Malin izan zirela ahaztuko balute ere, hortxe dute tam-tama oroigarri. Orain lagunekin mendira irteten direnean soka eta danborra eramaten dute motxilan.

'Frikientzat' Patagonia izenak badu esanahi berezia, eta ez Argentina aldeko harriei desafio egin dietelako. Arista enpresako bi kidek, Patagonia izeneko musika talde bat osatu dute eta han-hemenka ibiltzen dira ixiltasun uneak itoz.

## Marilen Zarraluki

Sexologa

# «Sexua zientzi bihurtu dugu hemen»

A. UNANUE / IRUNEA

**EGUNKARIA.**— Zer egin nahi duzue Lizarrako kontultan?

**MARILEN ZARRALUKI.**— Hezkuntz arloa eta terapeutikoa jorratu nahi ditugu. Gaur egun dau den zentru publikoek arlo terapeutikoa lantzen dute gehienbat, horretan gainezka daude, eta hezkuntzan ezer gutxi egiteko aukera dute. Jendearen erantzunaren arabera ikusi beharko dugu bietatik zein sakondu. Oraindik gure zalantzak ditugu, gai hauek oso tabuizatuak bait daude. Jendea psikologoarena joaten dela ezkutatzeko badu, sexologoarengana joatea are zailago izango da.

**EGUNKARIA.**— Hezkuntz arloan dagoeneko baduzue esperientzia, ezta?

**ZARRALUKI.**— Bai, zikloak antolatuta izan ditugu gurasoekin eta irakasleekin. Horiei informazioa ematen diegu, baina informazio soila nahikoa ez denez, jarrera pertsonalak lantzen ahalegintzen gara. Horrela, sinesmen faltsuak —masturbazioa kaltegarria dela, emakumearen multiorgasmoa... — deusezten saiatzen gara eta, era berean, gizartean dagoen rol banaketa ateratzen dugu argitara, oso baneratuak bait dago. Gai horiek orokorrak dira, baina badira espezifikagoak ere. Irakasleekin, esate baterako, 'curriculum ezkutua' deitzen dena aztertzen dugu. Asignaturak ez dira aseptikoak, beti asignatura gehi beste mezu bat irakasten da eta irakasleak horretaz jabetu daitezene nahi dugu. Matematikak, adibidez, neutroak dirudite, baina ariketak arretaz begiratuz gero hori gezurra dela ikus daiteke. Problema planteatzeko era ez da ber-

dina: 'Zure aitak 40 langile eta 20.000 pezeta ditu' edo 'zure ama azokara doa ehun pezetakin lau porru erostera'.

**EGUNKARIA.**— Noiz joaten da jendea sexologi zentru batera?

**ZARRALUKI.**— Normalean disfuntzioak dituen eta oso gaizki pasatzen ari denean. Ekialdean sexualitate propioa bizi dute, sexua artea da beraiantzat. Mendebaldean berriz sexua zientzi bihurtu dugu eta kanpo erreferentzi baten bila gabiltza beti. Gainera, hemen harremanak oso protokolizatuak daude eta oso finalistikak dira. Helburua orgasmoa da, eta kantitateari kalitateari baino garrantzi gehiago ematen zaio. Fantasiak landu beharrean, jendeak astean zenbat aldiz egiten duen begiratzen da.


**EGUNKARIA.**— Zer iruditzen zaizu komunikabideetan sexualitateari lotutako gaiak duten tratamendua?

**ZARRALUKI.**— Informazioa positiboa da, baina, lehen esan bezala, informazio hutsarekin ezer gutxi lortzen da. Inoiz baino informazio gehiago dago antisorgailuei buruz, baina gazteen haurdunaldiak ugaldi egin dira. Informazioa alferrikakoa da jarrera pertsonalak lantzen ez badira. Gainera, gaia ez da beti behar bezala enfokutzen. Arrakasta handia izan zuen telebista saio hartan, kasu, ez zuten sexualitateaz hitzegiten, disfuntzioez baizik. Osasun ideal bat sortu dugu sexuaren inguruan eta normala-patologikoa eskemarekin gabiltza oraindik.

**EGUNKARIA.**— Freud-ek sexuaz esandako gauza asko gezurtatu egin dira, baina orain beste guru batzuk azaldu dira: Master &

**D**atorren urrian Nafarroako aurreneko sexologi kontsulta pribatua zabalduko dute Lizarran, Fisios zentruan. Bertan ihardungo du Marilen Zarralukik. Itzaltsun jaioa, psikologi ikasketak egin zituen Zorroagako fakultatean eta bi ur-

tez sexologi masterra egin du Madrileko Incisex institutuan. Zarralukik dioenez, «Ekialdean norberak sexualitatea propioa bizi du, arte bat da. Mendebaldean berriz sexua zientzi bihurtu dugu eta beti kanpo erreferentzi baten bila gabiltza».



Marilen Zarraluki AEK eta IKAKo irakasle izan da urteotan. A. UNANUE

Johson, Hite, Kinsey.

**ZARRALUKI.**— Bai, horiek esportatzen dute Estatu Batuetako sexualitatea. Badirudi munduan ez dagoela besterik. Beraien sexualitateak berdur pixka bat ematen du, oso mekanizista eda produktibista bait da. Master & Johnsonen informea begiratzen baduzu, beti gauza bera da: lau fase, oso hotza. Ez dira azaltzen beste hainbat faktore: desioa, maitemintzeko moduak... Dena koitoraren inguruan dabil eta hori saltzen digute.

**EGUNKARIA.**— Emakumearen orgasmoaz ere izan dute zer esana adituek. Ondorioren bat atera al duzu zeuk?

**ZARRALUKI.**— Duela gutxi arte ez zen emakumearen orgasmoaz hitzegiten. Gizonezkoak desiatzen zuten eta emakumea desiatua zen. Antisorgailu oralekin dator aldaketa: erreproduktzioa eta sexualitatea bereiztu ahal izatean hasten da sexu demokrazia delakoa. Emakumeak badu orgasmoa lortzeko eskubidea. Orduan berehala agertzen dira Master &

Johnson multiorgasmoaz hitzegiten... Eta badirudi orgasmo pila bat ez duen emakumeak arazoak dituela, askori bakarrik lortzea nahiko zail egiten zaiotenean.

**EGUNKARIA.**— Sexu Desioaren Inhibizioa modan izan da urteotan. Zer esplikazio dauka?

**ZARRALUKI.**— Uste dut zerikusia duela emakumearen jarrerarekin. Lehen esan bezala, antisorgailu oralekin gauza guztiz aldatu zen emakumeentzat. Batetik, gozamenaren bila hastea posible egin zien, baina, bestetik, aliatu on bat galdu zuten emakumeek. Esan nahi dut lehen harremanik izateko gogorek ez zutenean haurdunaldiaren arriskua jartzen zutela aitzaki bezala. Antisorgailuek jadanik ez du aitzaki horrek balio eta horregatik hasten dira SDIri buruz hitzegiten. Lehen ere baze goen hori baina ezkutatu egiten zen. Azken urteotan SDI behera egin du eta gizonezkoen inpotentzia, berriz, gora doa. Emakumea pasiboa zen lehen eta desiatzaile gisa azaldu denean, gizona deskolokatuta gelditu da. Ez daki nola jokatu, eskemak hautsi zaizkio eta guzti horrek eragina du bere sexu ihardueran.

**EGUNKARIA.**— Esan ohi denez, hemen sexu harremanak edukitzea ez da bekatu, miraria baizik. Esaerak ba al du funtsik, zailagoa da bazter hauetan?

**ZARRALUKI.**— Bai, euskaldunak oso itxiak eta banerakoiak gara eta asko kostatzen zaigu sentimenduak adieraztea. Gainera, hemengo egoera politikoaren ondorioz energia pila bat desbideratzen da mobida sozial eta politikotara eta harreman pertsonalak eta sexualak beti bigarren mailan gelditzen dira.

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

